

bat

Soziolinguistika

aldizkaria



TXILLARDEGI-HAUSNARTU
SARIAK (2021)



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

TXILLARDEGI-HAUSNARTU SARIAK (2021)

> HITZAURRE GISA

Asier Basurto Arruti **007**

01. Hezkuntza soziolinguistikoa. Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena. (1. Saria)
Izaro Arruti Agirreurreta eta Sandra Prieto **011**

02. Euskararen marka: marketinetik hizkuntza plangintzara. (2. Saria)
Estitxu Garai, Irati Agirreazkuenaga, Irene Garcia, Sergio Monge, Angeriñe Elorriaga, Patxi Azpillaga, Ainara Miguel, Naroa Jauregizuria eta Koldo Atxaga **039**

03. Kulturaren eragina hizkuntzaren biziberritzean. Behin-behineko ondorio batzuk. (3. Saria)
Iñigo Beitia Ibarbia **075**

04. Zumaian ELE aplikatzeko oinarriak.
Xabier Azkue Ibarbia **099**

05. Hitanoa euskal hiztunen komunitate garaikidean: molde zaharretatik ertz berrietara.
Beñat Muguruza Aseginolaza, Garbiñe Bereziartua Etxeberria **135**

06. Hizkuntza erdigunera. Urola Kostako adinekoen osasun arretan hizkuntzak duen eragina aztergai.
Saioa Martinez de la Hidalga Azkue **167**

07. Idatzizko trebetasuna testuinguru soziolinguistiko desberdinetako CLIL eta ez-CLIL ikasgeletan.
Ainara Ortega Oar **193**

08. D ereduan euskaldundutako Lizarrako hitzun berri gazteen euskararen erabilera.
Ainhoa Pardina Arenaza **235**

09. Euskararen esanahia(k) euskalgintzako testu multimodalen azterketa genero perspektibatik (1960-2018).
Onintza Legorburu Larrea **263**

SOZIOLINGUISTIKAREN MUNDUKO LEIHOA

10. Regional and minority languages in the European Union.
Magdalena Pasikowska-Schnass **299**

Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz
HABE liburutegiarekin lankidetzan **323**

5

Hitanoa euskal hiztunen komunitate garaikidean: molde zaharretatik ertz berrietara

Beñat Muguruza Aseginolaza*
Garbiñe Bereziartua Etxeberria**

Laburpena. Ez dira betiko garai onenak euskarazko lagunarteko tratamenduarentzat. Hitanoaren ezagutzak eta erabilerak behera egin dute tai gabe azken hamarkada luzeotan. Oraindik erabiltzen den lekuetan gero eta gehiago mugatzen ari da gizonezkoen arteko erabilerara, arrazoi ugari direla medio. Azken urteotan hikako hizkeraren suspertze baten lekuko izaten ari garela dio hainbatek, eta lan honek aztertu nahi du egungo egoera zein den loraldi horren baitan, eta ahalik eta argazki osoena eskaini nahi du ertz ugariari erreparatuz: erabilera-datuak, transmisioa, genero aldagaiaren garrantzia, eta hitanoa euskarazko kultura-munduan, besteak beste. Hemen ondorioztatzen dugu akademiak eta gizarte-mugimenduek eskutik joan beharko dutela hitanoaren aparraldia apar hutsean gera ez dadin. • **Hitz gakoak:** Hitanoa, transmisioa, generoa, hedabideak, kultura-adierazpenak, hiztun berriak.

Abstract. These are not good times for colloquial relationships in the Basque language. The knowledge and use of *hitano* (the familiar form of the language) have diminished in recent decades. In places where it is still used is increasingly restricted to conversations between men, for many reasons. The study sets out to analyse the current situation and offer a snapshot –as complete as possible– from various perspectives: data on use, transmission, the importance of the gender variable, *hitano* in the cultural world in *euskera*, among others. We reach the conclusion that the academic world and social movements should go hand-in-hand so that *hitano* can flourish and not just remain in a bubble. • **Key words:** *hitano*, transmission, gender, the media, cultural expressions, new speakers.

* Irakaslea eta ikertzailea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). benat.muguruza@ehu.eus

** Irakaslea eta ikertzailea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). garbine.bereziartua@ehu.eus

Sarrera data: 2022-01-10 / Onartze-data: 2022-02-15

SARRERA

I
Duela urte batzuetatik hona, hitanoarekin batera entzun izan diren hitzak dira “aparraldia”, “loraldia”, eta “paradigma berria”, besteak beste. Bai akademian bai kalean nolabaiteko zeresana ematen ari da azken boladan. Lan honen xede nagusia, labur esanda, honako hau da: hitanoaren egoeraren gaineko errebisio garaikide kritikoa egitea. Azken urteotan lan ugari argitaratu da hitanoaren inguruko askotariko alderdiei begira. Eskuarlean dugun honek lan horietan ikusitakoak bildu, ikuspuntu orohartzaile batetik begiratu eta bide berriak ireki, iradoki, proposatu nahi ditu.

Azken urteotan argitaratutako lanak aztertuko ditugu hemen, batik bat; bai akademian eta bai akademiatik kanpo egindako ekarpen eta egitasmoak. Izan ere, urte gutxian dezente aldatu da kontua: hitanoaren erabilera, solaskideari hika egiteko irizpideak, ikuspegiak, diskurtsoak, baita euskal hiztunaren profila bera ere. Ez diegu inondik inora lehena-goko lanei garrantzirik kendu nahi, eta, bide batez, probestu nahi dugu hitanoaren gaineko ezagutzan oinarritzkoak izan diren bi lan aipatzeko eta goraiatzeko: Alberdiren (1996) doktorego-tesia, eta Azkuek (2000) Zumaian ondutako ikerketa. Bi-biak 90eko hamarkadan lortutako datuekin osatutako lan mardulak; hitanoa ikuspuntu soziolinguistikotik aztertu duen ororentzat derrigorrezko erreferentziak.

Lau ataletan banatu dugu artikulu hau. Lehenik, oinarritzkoenera joko dugu, hots, erabilerara; batez ere datuak eta horiek sortutako gogoeta batzuk jasoko ditugu. Ondoren, hitano-hiztunaren profil tradizionaletik abiatuta, hika ez egitetik egiterako bidez arituko gara. Hirugarren ataletan generoari dagozkion erpinak jarriko ditugu agerian, eta, azkenik, hitanoak ikus-entzunezkoetan eta kultura-jardueretan zer eman duen edo eman dezakeen eztabaidatuko dugu. Azken ondorio eta hausnarketak batzuekin itxiko dugu lana.

1. ERABILERA: GOITIK BEHERA ETA EZKER-ESKUIN

I
Hizketa baten egoera aztertzen jarrita, hizketa horren erabilerari berrari erreparatuko diogu lehenik. Zenbait neurketa egin dira azkenaldian, beti metodologia bera erabili ez arren; gainbegirada bat emango diegu segidan.

Urte gutxian dezente aldatu da kontua: hitanoaren erabilera, solaskideari hika egiteko irizpideak, ikuspegiak, diskurtsoak, baita euskal hiztunaren profila bera ere.

Nerabeengandik jasotako datu hauek argi uzten dute: ahizpa artean hitanoaren erabilera % 4,8koa da, eta anaia artean % 50ekoa. Lagunartean, aldiz, nesken artean % 2,4k egiten du hika, eta mutilen artean % 87,1ek. Generoak konbinatuz gero, datu apalak ateratzen dira orokorrean.

1.1. Hitanoa zenbakitan: Ikerketa kuantitatiboak

Hitanoaren erabilera erreala ezagutzeko saiakerak Soziolinguistika Klusterrak egin ditu. Azpeitiko eta Usurbilgo udalek hala eskatuta, herri horietako hizkuntzen kale-erabilera neurtu zuen, hitanoa ere aintzat hartuta. Azpeitian aztertutako 3.000tik gora herritarren artetik % 81,8 ari ziren euskaraz, eta horietatik % 18,1 hika. Ume gutxi identifikatu zituzten hika, baina gainerako adin-tarteetan antzeratsu aditu zituzten. Gizonezko gehiago entzun zituzten hika emakumezkoak baino (% 28,1 vs % 10,6), eta hika ari zirenen artetik askoz gehiago ari ziren toka, noka baino (% 45,1 vs % 17,5) (Soziolinguistika Klusterra, 2016). Usurbilen, berriz, euskaraz ari ziren herritarren % 73, eta kontuan hartu zituzten 1.000 hiztun pasatxoan artetik % 28,1 ari ziren hika¹; % 63,9 toka, eta % 11,1 noka. Gainera, gizonezkoen % 38,6 ari ziren hika, eta emakumezkoen % 14,6. Beste behin, haurrak ziren hika gutxien egiten zutenak (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Inkesta bidez erabilera aitortua jasotzeko ahaleginak ere egin dira, besteak beste Azpeitian. Bereziartua eta Muguruza aritu dira hango zenbait joerari beha. Berariaz diseinatutako galde-sorta sakon bati erantzun zioten 1.000tik gora herritarrek. Jasotako datuak zenbait lanetan eman dituzte argitara, eta emaitza azpimarragarrienak jasoko ditugu hemen.

Muguruzak eta Bereziartuak (2018) ikusi zuten parte-hartzaile helduen artean familiak hitanoaren nolabaiteko arnagune izaten segitzen duela, bereziki anai-arreben artean. Adina edo/eta generoa aldagaiak sartzen baditugu, ordea, gauzak asko alda daitezke: adinean behera egin ahala progresiboki jaisten da hitanoaren erabilera. Lagunartea da hitanoaren beste babesleku bat. Gizonezko lagunen artean erabat orokortuta dago hika egitea (% 93,2) baina emakumezko bat sartzen denean askoz gora-beheratsuagoa bilakatzen da tratamenduen afera.

Generoak bultzatutako aldeak are gehiago nabarmentzen dira adinean behera egin ahala, nerabeengandik jasotako datu hauek argi uzten dutenez: ahizpa artean hitanoaren erabilera % 4,8koa da, eta anaia artean % 50ekoa. Lagunartean, aldiz, nesken artean % 2,4k egiten du hika, eta mutilen artean % 87,1ek. Generoak konbinatuz gero, datu apalak ateratzen dira orokorrean.

1 Euskaraz ari ziren eta aditz-formaren bat erabili zuten solaskideak baino ez zituzten hartu kontuan, hortik Usurbilen hitanoa Azpeitian baino presentean dagoen itxura.

Muguruzak eta Bereziartuak (2020) etxe barruko transmisioari erreparatu zioten, Azpeitiko parte-hartzaile helduengandik jasotako datuak eskutan. Hiru belaunaldiren datuak probestuz, ikusi zuten hitanoaren etxeko transmisioak behera egin duela oro har. Transmisioa dela-eta, egileek iradokitzen dute transmisio soilak nekez justifika ditzakeela Azpeitiko hitanoaren erabilera-datu orokorrak, eta Kasaresek (2017) gurera ekarritako *sozializazioaren* ideiak errealitate hori hobeto ulertzen lagun diezaguke, berdinen arteko harremanak ere kontuan hartzen dituen heinean. Honela diote Muguruzak eta Bereziartuak (2020:563)

[Sozializazioak] hobeto azalduko luke hitanoaren biziraupena, ahultasunak ahultasun, transmisioaren goitik beherako eta betiereko eskema tradizionalak baino. Gazte gehienek lagun, ikaskide eta abarrekin dituzten harreman eszentriko horietan, eta haiek baino zaharxeagoak direnei entzun eta imitatu nahi horretan bilatu behar da, segur aski, hitanoaren indarguneetako bat.

Ildo beretik jotzen du Alberdi-Zumetaren (2019) lanak, gazte azpeitiarren testigantzetan oinarrituta. Lagin murriztarekin ateratako ondorioak diren arren, ikusi zuen gizonezko parte-hartzaileen erdiak baino ez zuela jaso hitanoa etxean, baina denek zutela gizonezko lagunekin toka egiteko ohitura. Bereziari deigarria da horietako baten aipua, zeinak etxean erdaraz baino ez zuen egiten: “Guk hika lagunekin kalien ikixi diau. Bestela etzeok esplikaziyoik, nik etxien erderaz iteiat eta hika bazakiat hitz eiten” (Alberdi-Zumeta, 2019:135). Berdinen arteko transmisio hori, noski, mutilen artean baino ez da gertatzen.

Azpeitia atzean utzita, hona ekarri beharra dago antzeko metodologiari jarraikiz Amasa-Villabonan Uxo Elustondok eta Ainara Ansak 2020aren amaiera aldean egindako ikerketa. Bi ikertzaileek 504 herri-tarregandik ateratako datuak Aztikerrek (2021) landu zituen. Zaila da bildutako datu andana hemen laburtzea, baina merezi du zertzelada batzuk aipatzea. Adibidez, alde handia dago Amasaren eta Villabonaren artean, lehenaren alde, hitanoaren erabilerari dagokionez. Edonola ere, Azpeitikoak baino apalagoak dira oro har erabilera-datuak, baina joerak oso antzekoak dira, genero-desorekari dagokionez batik bat. Muguruzak eta Bereziartuak (2020) Azpeitian detektatutako patroia bat errepikatzen da Amasa-Villabonan: “Aztertutako konbinazio posible guztietan jasotzen dute semeek hitanoa maizago alabek baino, eta ia kasu guztietan aitek gehiagotan egiten diete hika seme-alabei amek baino” (Aztiker, 2021:18).

Aztertutako konbinazio posible guztietan jasotzen dute semeek hitanoa maizago alabek baino, eta ia kasu guztietan aitek gehiagotan egiten diete hika seme-alabei amek baino.

**Hitanoaren
ezagutza eta
erabilera zaindu,
mantendu edota
suspertu nahi
badugu, esku-
hartzea eskatzen
du egoerak modu
urgentean.**

Imazek (2018) Seguran inkesta bidez egindako ikerketa azalduko dugu azkenik. 250 herritarren ezagutza- eta erabilera-datuak jaso zituen, haur nahiz helduenak. Datu xehe gehiegi ez dugun arren, joerak errepikatu egiten dira: emakumezko helduen artean hitanoaren ezagutza altua da, baina horietako askok oso gutxi erabiltzen omen dute. Gazteenen artean, ordea, mutilek elkarri hika egiten dioten arren, neska gehienak ez dira erabiltzeko gai ere. Beraz, gizonezkoen artean sendo mantentzen da, baina emakumezko bat ekuazioan sartuta, gainbehera argia da Goierriko herri honetan ere.

1.2. Kantitatea badakigu... baina eta kalitatea?

Erabiltzen den hitanoaren kalitateari dagokionez, azken urteotan ia ez da ikerketarik egin hiztunen ekoizpenak zuzenean aztertzeko, guk dakigula. Elustondok (2021) heldu dio lantegi horri berriki, eta datu ugari eta interesgarriak utzi dizkigu. Ordiziako Jakintza Ikastolako DBH3, DBH4 eta batxilergoko ikasle guztien artetik, Zaldibiako sei hikatzaile eta altzagar bakar bat baino ez zituen atzeman. Azkenean, zaldibiarren erabileran zentratu zen: emakumezko baten eta bost gizonezkoen azterketa xehea aurkezten du lanak, bi ikerketa-tresna erabilia: galdetegi bidezko datu elizitatuak, eta haien arteko elkarriketa librea. 15-17 urte bitarteko hiztun horien joera orokorrak hiru ataletan banatuta daude:

- a) “Bitariko formak” erabiltzen dituzte, hau da, aditz berbera adierazteko bi (edo hiru) forma desberdin dauzkate errepertorioan.
- b) Alokutiboaren murriztapen sintaktikoari dagokionez, tradiziozko erabileratik urrun daude; izan ere, murriztapena espero zitekeen mendeko perpaus guztiak aintzat hartuta, gehiagotan jo dute alokutibora adizki neutroetara baino (114 vs 50).
- c) Hitanoaren “higatzea” edo “ahitzea” deitu dio ikertzaileak hiztunek erakutsitako hutsune, gabezia edo alternantziei. Parte-hartzaileek adizki neutroak erabiltzen dituzte esaldi deklaratioetan, tokako formak nokakoa behar lukeenean, adizki asmatuak, eta abar. Nokako formen kasuan higatzea askoz handiagoa dela argi adierazten du ikertzaileak.

Ikerketa honek datu esanguratsu franko utzi dizkigu. Gipuzkoako eskualde euskaldun bateko Ikastolen Elkarteko zentro honetan hika egiteko gai diren nerabe apurren kopurutik hasita, hiztun horien ekoizpen halamoduzkoetaraino. Etorkizunera begira uzten duen perspektiba agerikoa da, eta egileak ez dio iskin egiten: “Hitanoaren ezagutza eta

erabilera zaindu, mantendu edota suspertu nahi badugu, esku-hartzea eskatzen du egoerak modu urgentean” (Elustondo, 2021:120).

Kalitatearen aferari lotuta, Euskaltzaindiak eta Ezkerraberri Fundazioak 2018ko ekainean antolatutako *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak* jardunaldian², “Euskara estandarra eta erregistro informalak” hitzaldia eskaini zuten Xabier Euzkitzek eta Joxerra Garziak. Komunikazioaren munduko bi profesional, nor bere erara, eta biak hitanozale amorratuak. Bada, hitzaldiaren amaieran hitanoa malgutzearen alde egin zuten biek ala biek, baina hemen ere, nor bere erara. Garziak aspektu sintaktikoan hain zorrotz ez jardutea proposatzen du; Euzkitzek, aldiz, arau sozio-pragmatikoetan malgu jokatzearen alde egiten du.

Eremu askotan mendeko perpausetan alokutiboa erabiltzea ia araua dela esan daiteke 50 bat urtez beherako hitano-hiztunen artean, edo ausaz erabiltzea alokutiboa edo neutroa, baita baldintzazko perpausetan ere. Beraz, zalantzazkoa da galderazko –eta zer esanik ez harridurazko– perpausetan neutroa erabili beharrarekin gehiegi tematzea onuragarria ote den. Hitanoak aurrera egingo badu, segur aski ez du merezi sintaxiarekin zurrun jokatu eta esentziarik puruenaren bila jostatzen aritzeak.

Azken urte luzeotan gizartean indarrean egon diren joera sozio-pragmatikoak ere lausotzen ari dira pixkanaka, baina oraindik egonkor samarrak dira. Hika egitea behetik gora, hori zernahi delarik ere, arrarotzat jo ohi da oraindik, eta are desegokitzat.

Zaila da aurreikustea zein den hartu beharreko bidea: malguegi jokatzen bada, lagunarteko tratamenduaren funtsa gal daiteke neurri batean; zorrotzegi arituz gero, hiztunak eta hiztun potentzialak uxa daitezke. Abiapuntu gisa, tradizioz hitanoa nola erabili izan den jakitea beharrezkoa ikusten dugu. Hortik aurrera, erabaki indibidual eta kolektiboek baldintzatuko dute hitanoak etorkizunean hartuko duen norabidea.

2. HITANOA HIKASTEN

Jakina da egungo euskaldun gehienek ez dutela hika egiten, izan ohitura faltagatik, izan ez dutelako ezagutzen. Motibo ugari daude hutsune horren atzean, baina kapitulu honetan azaldu nahi dugu, batetik, hita-

Zaila da aurreikustea zein den hartu beharreko bidea: malguegi jokatzen bada, lagunarteko tratamenduaren funtsa gal daiteke neurri batean; zorrotzegi arituz gero, hiztunak eta hiztun potentzialak uxa daitezke.

² <https://www.youtube.com/watch?v=uPGc-ZaeuY>

Ikerketako parte-hartzaile azpeitiarren hautemateak bi multzotan sailkatuta daude: batetik hizkera zakar, zikin eta zabartzat jotzen dute, baina bestetik goxotasuna, xarma, morboa eta bizitasuna ere iradokitzen die. Bigarren multzo hori gailentzen da, argi, autorearen arabera.

noaren ospe txarra nolabait iraultzen hasi ote den pentsatzeko zantzuak ere azaleratu direla; eta, bestetik, hitanoa erabiltzeko zailtasun bakarra ez dela aditz-paradigma goitik behera menderatu beharra. Azkenik, eskolak bete dezakeen papera eta azkenaldian eskolatik at garatutako proposamenak aurkeztuko ditugu.

2.1. Hitanoa eusko label: kalitatearen “K” ikurra

Euskaldun tradizionalaren irudiari lotu izan zaio maiz hitanoa; eskuarki, baserritarrarenari. Nekazaritza-giroko herri txikiak eta baserri-mundua aipatu izan dira hitanoaren gaineko ikerketa anitzetan (Alberdi-Zumeta, 2019; Beitia, 2017; Legorburu, 2018; Ozaita, 2014). Klase sozial apaleko herritarrekin lotzetik datorke, neurri batean, hitanoaren ospe txarra, eta maiz esleitu izan zaizkion adjektiboak ere bai: zakarra, gordina, takarra, eta abar.

Hala ere, hitanoaren ikuspegi tradizionalaren aurrean, Echeverriak (2001, 2003) duela zenbait urte Donostiako hezkuntza-komunitateetan ikusitakoak aintzat hartuta, beste ezaugarri batzuk ikusi zituen: “benetako” euskaldunaren eta euskalkiaren arteko lotura argi ikusi zuen, eta euskalkiaren barruan hitanoa jo zuen ikur gorentzat, bereziki gizonezko euskaldun zaharrentzat. Euskaldun berriek batuan egin ohi dutela ere azpimarratu zuen, edo euskaldunon iruditerian hori presente dagoela, behinik behin.

Legorburuk (2018) ere ildo bereko konnotazioak ikusi dizkio azken boladan. Antzuolan egindako behaketa eta elkarrizketen bidez ondorioztatu zuen hitanoak “labela” edo “pedigria” eman ziezazkiokeela hiztunari. “Benetako” euskal hiztun gisa irakur dezakete ingurukoek, autentikotasun-zigilu moduko bat litzateke. Hitanoa zerekin lotzen duen galdetutakoan, honela erantzuten du parte-hartzaileetako batek: “Nik jatortasunakin. Euskal jatortasuna. Hau da, euskeria... O sea, euskeria ez hurrengua. Tipo ba ‘matricula de honor’ euskeraz bezela” (Legorburu, 2018:131).

Alberdi-Zumetaren (2019) ikerketako parte-hartzaile azpeitiarren hautemateak bi multzotan sailkatuta daude: batetik hizkera zakar, zikin eta zabartzat jotzen dute, baina bestetik goxotasuna, xarma, morboa eta bizitasuna ere iradokitzen die. Bigarren multzo hori gailentzen da, argi, autorearen arabera.

Azken hiru egileengandik jaso ditugun aleek Legorburuk (2018) *hitanoaren paradigma berria* izendatu zuen horretara garamatzate. Urte luzez bizkarreratu izan zaio hitanoari ospe txarra, estatus baxuko pertsonen hizketatzat hartu eta, bereziki, emakumezkoei hitz egiteko formak zapuztu. Hala ere, badirudi konnotazio ilun horiek, neurri batean, irautzen ari direla. Esan bezala, zenbait testuingurutan hitanoa nolabaiteko kalitate-ikur bilakatu da, hitano-hiztunaren profila aldatu egin da eta nokako formak emakumezkoak ahalduntzeko baliabide potentzialtzat ikusten dira (3.3. atalean sakonduko dugu horretan). Dena den, hitanoaren gaineko diskurtso zaharren eta berrien arteko dikotomia hertsirik ezin osa genezake, diskurtsoak urardotzen nola ari diren behatu baizik.

Iruditeria hori guztia ez da intentsitate berean sumatzen genero bategan eta bestearengan. Izan ere, hitanoaren esanahiak aldakorrak baina nahiko argiak dira gizonezkoari eta tokako formei bagagozkie, ikusi dugun bezala. Emakumezkoen kasuan, aldiz, askoz zalantza gehiago sor ditzake. Legorburuk (2018:133) dioen moduan, “emakumeei hitanoz aritzeak sentipen kontrajarriak” eragiten dizkie. Gizonezkoen arteko hartu-emanetatik harago, gainerako konbinazioetan konplexuagoak eta lausoagoak dira hitanoaren erabileraren esanahiak, eta beharbada dinamikoagoak ere bai, denboran zehar eboluzionatzen ari direlako. Echeverriak (2001:358) honela dio:

As *hika* comes to be seen as essentially linked to male speakers and masculinity, use of *hika* by women is pushed to the periphery where its social meanings become much more ambiguous. Certainly, these associations with *hika* and *zuka* are socially constructed and continually negotiated. Just as Basque women have challenged traditional gender roles in other cultural spheres, it is possible that they can reappropriate the social meaning of *hika* in such a way that it can express “feminine” as well as a “masculine” voice.

2.2. Hitano-hiztun berriak, alfonbra gorririk gabeak

Hitanoa hiztun-profil jakin batekin lotzeak ez du esan nahi gainerakoek ezin dutenik ikasi, eta, zergatik ez, erabili. Baina erronka ugariri aurre egin behar izango dio, agian, hitanoa bere hizkuntza-errepertorioan gehitu nahi duen normahik. Zailtasun batzuk datoz ikasi beharreko formen balizko konplexutasunetik, eta beste batzuek, aldiz, *hika* egin ahal izateko autoritate edo zilegitasunarekin dute lotura.

Zenbait testuingurutan hitanoa nolabaiteko kalitate-ikur bilakatu da, hitano-hiztunaren profila aldatu egin da eta nokako formak emakumezkoak ahalduntzeko baliabide potentzialtzat ikusten dira.

***Euskal hiztun
berrien artean
ez omen da ia
hedatu hitanoa,
erabilera
altua dagoen
eremuetan izan
ezik normalean
eskoletan ez
delako lantzen.***

Alberdik (2018) erakusten dituen datuak duela 30 urte ingurukoak badira ere, gogoeta interesgarri batzuk utzi zizkigun, gaurkotasunik batere galdu ez dutenak. Egungo gazte gehienak eskolaren bidez euskalduntzen direnez gero, eta hezkuntzan hitanoa gehiegi lantzen ez den neurrian, gehien-gehienek ez dute tratamendu hori menderatzea lortzen. Etorkizun beltza iragartzen dio Alberdik (2018) hitanoari, eta hiru arrazoi zerrendatzen ditu: bere izaera markatua, azken hamarkadetakako beherakada erabilera, eta eskolan batua jaso duten euskal hiztun berrientzat hikako aditz-paradigma ikasteko zailtasuna. Azken arrazoi horretatik tiraka, euskal hiztun berrien artean ez omen da ia hedatu hitanoa, erabilera altua dagoen eremuetan izan ezik normalean eskoletan ez delako lantzen. Kintanak (2005:157) ere ikusi zuen aparteko zailtasun hori, baita euskaldun zaharrentzat ere:

Hitanoa, etxeko giroan jaso ez dutenarentzat ez bada, –eta holakoentzat ere bere familia eta herriko ingurune konkretu horretan erabiltzen den modu berezian besterik ez– etengabeki zailduz, korapilatuz eta dialektalizatuz joan da, eta gaur egun praktikan ezin ikasizkoa gertatzen zaio zuka egiten ohiturik dagoen euskaldun zahar zein berriari.

Alberdiren (2018) arabera, hitanoa menderatzen ez dutenek *inputerako* aukera eskasak dituzte. Izan ere, euskaldun zaharrek euskaldun berriekin hitz egiten dutenean, maiz hika egitea saihesten dute. Bereziartuak eta Muguruzak (2020:118) ere iritzi hori jaso zuten: “Ikusten badut euskaldun berria, edo ikasten ari dena edo... zukara pasatzen naiz”. Euskaldun zahararen eta hitanoaren arteko asoziazioa beste batzuek ere aipatu izan dute, eta, horrenbestez, euskaldun berriaren eta hitanoaren arteko ezkontza zaila (Echeverria, 2001, 2003). Dena den, “euskaldun zahar” eta “euskaldun berri” kategoriak zabalak eta lausoak dira, eta xeheago begiratuko diogu horri datozen lerroetan.

Hizkuntza gutxituetako hiztun berriek zilegitasun-falta sumatu ohi dute hizkuntza menderatuta ere ez dutelako jatorrizko hiztunek duten “benetakotasun” zigoririk. Azken urteotan ikusi dugu, zenbait lanen argitan, euskararen kasua ez dela salbuespena. Ortega et al.-ek (2015) ondorioztatu zuten euskal hiztun askok bigarren mailako hiztuntzat zutela beren burua, bereziki euskaldun zahar petoarekin alderatuta. Batuan mintzo direnek konplexu puntu batekin azaltzen dute haien esperientzia euskaldun gisa; euskalkia menderatzeraz ailegatu direnen artean, aldiz, poza eta harrotasuna gailentzen da, euskaldun zaharrentzat hartua izatea izanik lorpen gorena. Gainera, Zumaiako parte-hartzaile

batek esan bezala, euskalkian eta hika hitz egiten ikasi izana gakotzat zituen herrikideen artean eroso integratzeko.

Hitanoa eta euskalkia eskutik joan ohi dira maiz. Zentzuzkoa da, neurri batean, hitanoa batez ere ahoz erabiltzen baita, eta ahozko hizkera euskalkiarekin lotzen baita. Alberdi-Zumetak (2019) ezin argiago erakutsi zuen lotura hori: bere ikerketako parte-hartzaile azpeitiarrek zuka egiteari “euskara batua” deitzen zioten sarritan, eta hika egiteari “herriko euskara”. Autorearen esanetan, ez ziren jabetzen hikako forma batuak badirenik ere. Bereziartuak eta Muguruzak (2020:118) ere jaso zuten antzeko ikuspuntua parte-hartzaile azkoitiar baten ahotik: “Niretzat hika, ordea, euskalkiaren parte da. (...) Nik hika azkoitiarrez bakarrik egiten dut. Batuan ez dut behin ere egin”. 1994an arautu zuen Euskaltzaindiak hitano batua, baina batez ere telebistan eta literaturan erabiltzen da, eta ez hainbeste lagunarteko hizkeran (Alberdi, 2018). 4. atalean landuko dugu esparru horietan zer eman duen hitanoak.

Hitano-hiztun berrien gaia oraindik gehiegi aztertu gabekoa da. Ozaitak (2014) aipatu zituen “hika hiztun berriak”, haien erabileraren ezaugarri batzuk gainetik azaltzeko, batez ere arau sozio-pragmatikoetan irizpide berriak aplikatzen dituztelakoan, tradizioetik neurri batean urrunduta. Beitiak (2017) ere adiera hori darabil bere ikerketako zenbait parte-hartzaileekin.

Doi-doi landu zuten hitano-hiztun berrien gaia Bereziartuak eta Muguruzak (2020), eta zenbait parte-hartzailek botatakoak baliagarri zaizkigu hemen. Horietako batek, emakumezko bertsolaria berau, zilegitasunaren aferari zuzenean heltzen dio (118. or):

Biolentatu egin behar duzu pixka bat zure burua hika egiteko, intseguritatea daukazunez, euskaldun berriaren bastante antzeko zerbait iruditzen zait... Eta bertso-afari batean, Bilbon, ausartuko nintzateke, eta Abaltzisketan ez. Bilbon ez zaitu desautorizatuko hika gaizki egiteak.

Bereziartuak eta Muguruzak (2020) jasotako bi ideia azalduko ditugu hemen, bata bestearen ondorio, hein handi batean. Batetik, hitano-hiztun bilakatzeko, formak ezagutzeaz gain, euskaldun petoarekin lotzen diren ezaugarriak bere egin beharko ditu hiztunak, hots, euskaraz bizi den euskaldun zahar euskalkiduna izatea, bereziki; bestetik, eta horrenbestez, hitanoa esparru horretara mugatuz gero, atzera-kontua hasia da lagunarteko tratamenduarentzat. Irizpide horiek nola edo hala malgutu beharraz ohartarazten dute.

Hitano-hiztun bilakatzeko, formak ezagutzeaz gain, euskaldun petoarekin lotzen diren ezaugarriak bere egin beharko ditu hiztunak, hots, euskaraz bizi den euskaldun zahar euskalkiduna izatea, bereziki.

Beharrezkoa iruditzen zaigu afera honen gainean gehiago ikertzea; esaterako, hitano-hiztun berrien motibazioak, ibilbideak eta sentipenak sakon ezagutzea.

Hemen azaletik landu badugu ere, ikergai interesgarritzat jotzen dugu hitano-hiztun berriena, oraindik esploratzeko dagoen lerro emankorra izan baitaiteke. Bestela ere hedatzeko arazo franko ditu hitanoak, eta komunitate txiki batera zedarrituz gero, aurrera egiteko nahiko lan izango du. Beharrezkoa iruditzen zaigu afera honen gainean gehiago ikertzea; esaterako, hitano-hiztun berrien motibazioak, ibilbideak eta sentipenak sakon ezagutzea.

2.3. Erregistroen lanketa eskolan: hitanoa ere hezkuntzaren saski-naskira

Esan izan da eskola dela hitanoaren gainbeheraren eragileetako bat: dela hikako formak ez direlako erakusten, dela batua erakusten delako eta ez herriko hizkera. Halere, kontrako bidea aldarrikatzen duenik ere bada; hau da, eskolaren bidez hitanoa zaindu, zabaldu eta praktikatu daitekeela, eta hain zuzen eskolak izan behar duela hitanoaren bultzatzaile nagusietako bat. Aitzindariak dira horretan Zumaiako eta Azpeitiko udalak. 2011n hasi ziren egitasmoarekin, eta Lehen Hezkuntzako 5. mailan hasi eta DBHko 4. mailara iristen da. Udaletako teknikariek koordinatzen dute, Soziolinguistika Klusterrak laguntzen die irakasleen formazioan eta materialen egokitzapenean. Unitate didaktikoak gertukoak izan daitezen arduratzen dira, herrian herriko pertsonaiak, lekuak eta hizkera erabilia.

2021a hastearekin batera, 3.3. azpiatalean garatuko dugun Oñatiko *Ingo Xonau!* egitasmoaren bidez, Oñatiko eskoletara ere iritsi da hitanoa. Herriko hiru ikastetxeetako DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleekin lantzen ari dira, batez ere ahoz, “Oñatiko hika poltsikaran” liburuxka. Astean 15 minutu eskaini dizkiote, Euskara ikasgaiaren barruan. Hiru urteko plangintza dute burutan, eta nokako formei eman diete garrantzi berezia, mutilen arteko hitanoa hedatuago dagoelakoan.

Horiek dira martxan dauden egitasmoak³, guk dakigula, baina azken boladan unibertsitatetik beste proposamen batzuk iritsi dira, oraindik inplementatu gabe edo eskala txikian praktikan jarri direnak; gradu- eta master-amaierako lanetan aurki ditzakegu proposamen horiek. Unitate didaktikoak dira hemen labur azalduko ditugun lau lanak, eta denek dute asko jolasetik eta ludikotasunetik, eta ahozkoa lantzeari ematen diote garrantzi berezia.

3 Kontuan hartu lan hau 2021eko irailerako idatzi zela. Orditik hona sortu diren ekimenei buruzko informazioa www.hitanoaz.eus webgunean aurki dezakezu.

Batetik, Imanol Amianok (2016) komikia proposatu zuen DBHn hitanoa lantzeko, euskarri hori ahozkotasetatik oso gertu dagoelakoan, eta “zailantzarik gabe, hitanoa ahozko hizkeraren erregistroari” dagokionez, “bikain egokitzen zaio komikiari” (28. or). Azpeitiko eskoletan martxan dagoen egitasmoa osatzeko helburua du Amianoren proposamenak.

Bestetik, Alaitz Imazek (2018) Seguran hitanoaren egoeraren diagnostikoa egin zuen, 1.1. azpiatalean azaldu bezala. Horretan oinarrituta, proposatu zuen eskolako LH5 eta LH6ko haurrak gainerako herritar hitano-hiztunekin harremanetan jartzea, aditz-taulei gehiegi begiratu gabe. Hortik abiatuta, 17 asteko sekuentzia-didaktikoa diseinatu zuen.

Labetik atera berri diren proiektuei erreparatuta, Uxue Zabalak (2021) antzerkian oinarritutako unitate didaktiko bat proposatzen du, eskoletan identifikatu dituen bi hutsune batera estaliz: hitanoa eta ahozkotasetuna. Tolosan aplikatu du bere esku-hartzea, Lehen Hezkuntzako 3. mailako gela batean.

Azkenik, Ainara Elortzak (2021) Azkoitiko Haur Hezkuntzako umeekin lantzeko proposamen didaktikoa dakar. Hitanoa erabiltzeko baliabideen artean sartzen ditu ipuinak, antzerkia eta abestiak. Egilea jabetzen da batzuen begietara ikasleak txikiegiak izan daitezkeela hitanoa lantzen hasteko, baina garrantzitsutzat jotzen du lagunarteko tratamendua eskolan lehenbailehen txertatzea.

Egitasmo horiek guztiak interesgarriak dira, eta segur aski behar-beharrezkoak, baina zenbait baldintza ere ezinbestekoak dira arrakastatsuek izango badira: beharrezkoa da esku-hartzea diseinatzeko edo egokitzeko lana norbaitek hartzea eta material horiek sortzea; horretarako lagungarria izan daiteke tokian tokiko udalek akuilu lana egitea eta beharrezko baliabide ekonomikoak eskura jartzea; behin baliabideak edukita, komenigarria da hezkuntza-komunitatea inplikaturik egotea eta irakasleek behar besteko ezagutza izatea; eskolatik kalerako jauzia egin nahi bada, zubi hori izan daitezke, neurri batean, eskolaz kanpoko ekintzak, hor parte hartzen duten hezitzaileen formazio eta inplikazioarekin; eta, azkenik, familiaren edota erreferenteen inplikazioa legoke, eredu zein bultzatzaile izan litezkeen heinean.

Dena dela, hitanoa ere eskolaren esku uzteak zalantza ugari sortzen ditu. Ikusitako lanek tokiko aldaeren alde egin dute batik bat, eta herrian komunikatzeko balioko badu, segur aski hori da bidea, zenbaiten-

Hitanoa ere eskolaren esku uzteak zalantza ugari sortzen ditu. ... Kontuan hartuta ikasle askok batua eskolarekin lotzen duela, eta hitanoa hain zuzen lagunarteko hizkera informalerako nahi badugu, ez ahal gara etxekalte ariko hitanoa hezkuntza arautuan sartuta?

Hezkuntza-zentrotik kanpo ere leku egitea ezinbestekoa da, bai haurren kasuan eta bai helduen kasuan ere.

tzat kontraesankorra edo desegokia izan badaiteke ere (ikus Amiano, 2016:22). Eta beste gogoeta bat ere suerta liteke: kontuan hartuta ikasle askok batua eskolarekin lotzen duela, eta hitanoa hain zuzen lagunarteko hizkera informalerako nahi badugu, ez ahal gara etxekalte ariko hitanoa hezkuntza arautuan sartuta? Muñoak (2020:122) argi du: “Ikaste-txe barruan nahiz kanpoan nagusiki euskaraz biziko diren gazteak hezi nahi dituen eskolak, ahal duen neurrian baina ezinbestean, erregistro eta aldaeren gaiari heldu beharko dio”.

2.4. Eskolaz kanpoko egitasmoak, asko eta askotarikoak

Hitanoa zabaltzearen aldeko eragileek eskolaz kanpo ere hitz egin dadin hedatu nahi dute hitanoa. Beraz, hezkuntza-zentrotik kanpo ere leku egitea ezinbestekoa da, bai haurren kasuan eta bai helduen kasuan ere. Helburu horrekin ugaritu dira azken urteotan hemen zerrendatu ezin ditugun dozenaka ikastaro, Hikalagun programa, hikapoteo eta abarrak. Hemen gutxi batzuk aipatuko ditugu, berriak eta berritzaileak diren zenbait adibide baino ez. Horiez gain, ikusten ari garen egitasmo asko genero-ikuspegitik pentsatuta daude, eta horiek 3.3. azpiatalean landuko ditugu.

2020ko Euskaraldiaren olatua aprobetxatua, Hikaldia antolatu zuen herriari Oartzungo Ttur-ttur elkarteak. 415 lagunek eman zuten izena, % 54 emakumezkoak eta % 44 gizonezkoak. 100dik gora parte-hartzailek erantzun zioten antolatzaileek prestatutako galde-sortari. Datu interesgarri ugari utzi zituzten emaitzek, eta horietako bat da aurrerantzean hika egiteko gogoia: “Gustatuko al litzaizuke hika egitea, egiten duzuna baino gehiago?” galderari, ia % 95ek baietz erantzun zion. Gehiago ez egiteko arrazoi nagusiak, ohikoak: ohiturak aldatzeko zailtasuna, hitanoa nahi adina ez menderatzea, eta inguru hikalaririk ez izatea (Ttur-ttur elkarteak, 2021). Ttur-Ttur elkarteak oso balorazio positiboa egin zuen, eta etorkizunean hitanoa gehiago lantzeko konpromisoa hartu zuten: epe laburrean hitano-ikastaroa, Hikalaguna eta beste hikaldi bat antolatzeko asmoa dute. Oartzungo hikako formekin liburuxka ere argitaratu dute.

Bergaran ere antolatu zuten Hikaldia, Oartzunekin batera, baina herri horretako daturik ez dugu esku-artean. Halere, segida izan zuen ekitaldiak: batetik, Jardun euskara elkarteak, 2021a hastearekin batera, Hikalaguna egitasmoa jarri zuen martxan herritarrentzat; bestetik, Bergarako Udaleko 30 bat langilek hitanoa praktikatzeko taldeak eratu zituzten garai beretsuan.

2021eko hasmentan, arnasmunen balioa indartzeko *Arnasa gara* egitas-moko bigarren kanpaina plazaratu zuen UEMAK. Kanpaina horretako “Hitanoarekin, busti gehiago” izeneko atalean, ikus-entzunezko esketx bat zabaldu zuten, eta, horren harira, Aitziber Garmendia aktore zaldi-biarra elkarrizketatu, hark hitanoarekin izandako bizipenak eta haus-narketak parteka zitzen.

Hitanoa ikasi nahiz praktikatzea helburu duten ikastaroak antolatu dituzten herriak ere bat baino gehiago dira: 2021eko udaberrian hita-no-ikastaroa antolatu zuten Ibarra; Durangaldean Hiketalagun tal-deak antolatu eta “Poltsikorako hitanoa” liburuxka argitaratu zituz-ten 2021eko udaberri amaieran; Galdakaon hitanoari buruzko hitzaldi praktikoa gauzatu zuten 2021eko maiatzaren amaieran eta Berbalagun egitasmoak hitanoa lantzeko taldea sortzea du helburu⁴.

Pentsatzekoa da aurrerantzean ere hamaika ekimen jarriko dituztela martxan, askotarikoak izango direnak, batzuk ofizialagoak eta besteak *underground*agoak, batzuk jendetsuagoak besteak intimoagoak, baina hitanoaren sua piztuta mantentzen lagunduko dutenak, neurri batean ala bestean. Azken ohar gisa honako hau: lagunarteko hizkera kolokia-larekin duen lotura eten nahi ez bada, segur aski garrantzitsua izango da ez dezatela itxura instituzionalizatuegia izan, eta lehen azaldutako hezkuntza-proiektuen ildotik, izaera ludikoa izan dezatela egitasmo horiek, hots, ez ditzatela ohiko irakaskuntza-dinamika magistralak erreproduzitu.

3. GENEROA, HITANOAREN GAKO

Lan honetan zehar une oro dago generoaren gaia presente, aipatzen den zeinahi alor gurutzatuko baitu ezinbestean, baina atal honetan bereziki jarriko dugu fokua aldagai horretan. Erabilera-datu desberdinez gain, beste hamaika erpin ditu hitanoaren eta generoaren arteko bideguru-tzeak, eta horiei begira jarriko gara.

Lagunarteko hizkera kolokialarekin duen lotura eten nahi ez bada, segur aski garrantzitsua izango da ez dezatela itxura instituzionalizatuegia izan, eta lehen azaldutako hezkuntza-proiektuen ildotik, izaera ludikoa izan dezatela egitasmo horiek.

4 Kontuan hartu lan hau 2021eko irailerako idatzi zela. Orduetik hona sortu diren ekime-nei buruzko informazioa www.hitanoaz.eus webgunean aurki dezakezu.

**Hitanoaren
genero-
arrakalari
oso ikergai
tentagarria
deritzogu, oro
har generoak giza
komunikazioan
jokatzen duen
rola hobeto
ulertzen lagundu
diezagukeelako.**

3.1. Generoen arteko aldea: zirriketua ala arrakala?

Ikusi dugunez, gizonezkoen arteko harremanetara mugatzen ari da hitanoa gero eta gehiago, eta, emakumezko bat tarteko dela, asko jaisten dira hikako tratamendua gertatzeko aukerak. 1.1. azpiatalean ikusitako ikerketa guzti-guztiek erakutsi dute joera bera, eta oraindik hika egiten den herrietan adi samar egotea besterik ez dago, gizonezkoen eta emakumezkoen praktika ezberdinez jabetzeko.

Ikusitakoak ikusita, gogora datozkigun galderetako batzuk honako hauek dira: zergatik amildu da emakumezkoentzako nokako forma azken hamarkada hauetan? Zergatik desagertu da hitanoa emakumezkoen ahoetatik? Zergatik jo dute gizonezkoek gero eta gehiago zuka egitera emakumezkoekin ari direnean? Hitanoa mantendu den leku guztietan antzeko arrakala ikusi dugu, ñabardurak gorabehera, eta, beraz, bistakoa da ez dela fenomeno isolatu bat, eta atzean aldagai antzekoek egon behar dutela eremu horietan guztietan.

Echeverriak (2001, 2003) gako asko proposatu zituen gainbehera ulertzeko, Aretxabaletak (2016) Arratiako noketaren galera aztertu zuen, eta Azpeitiko herritarren hautemateak ere jaso dituzte berriki (Muguruza, Bereziartua & Etxeberria, 2020; Bereziartua & Muguruza, 2021). Hauek dira identifikatutako zenbait gako: hitanoari egotzi izan zaion ospe txarra edo prestigio baxua, eremu publikoa eta pribatua generoaren arabera banatu izana, askotariko presioak direla medio emakumezkoek estatus baxuko hizkerak baztertzeko izan duten joera, baserri mundutik kalera lan bila joandakoan bete behar izandako ogibide-patroi desberdinak edota hitanoak maskulinitatearekin izan duen harreman ikonikoa, besteak beste. Esparru akademikotik at, Oñatiko *Ingo Xonau!* egitasmoak herritarrengandik jasotako testigantzekin egindako bideoak⁵ ekarpen ezin aberasgarriagoa egin dio auzi hau hobeto ulertzeari.

Hitanoaren genero-arrakalari oso ikergai tentagarria deritzogu, oro har generoak giza komunikazioan jokatzen duen rola hobeto ulertzen lagundu diezagukeelako, besteak beste. Agirre eta Eskisabelen (2019:51) hitzetan, "hitanoaren moldeak giza harremanez esaten diguna eta giza harremanak hitanoaren bidez gauzatzen direnean gertatzen dena ikeretzea interesgarria da". Zalantza dugu, ordea, gaurdaino proposatu diren arrazoietatik haragoko elementurik erraz aurki ote daitekeen; hau

5 <https://www.youtube.com/watch?v=H7MVKyAp10k&t=871s>

da, honezkero ez ote dauden karta guztiak –edo gehienak– mahai gainean. Gainera, kausa-ondorio efektua benetan aurkitzerik ez dago, halakorik balego. Horrenbestez, ikergai gisa baino, izatekotan, memoria gordetzeko helburuarekin eta formatu dibulгатiboago batekin ikusten diogu potentzialtasun handiagoa. Iraganeko akatsetatik ikasi eta aurrerantz bide onetik jarraitzeko.

3. 2. Noka tokatzen denean: hitanoaren erabilera sexista

Aski ezagunak dira emakumezkoak hitanoa dela eta pairatzen dituen egoera azpiratzaileak. Hemen zerrendatuko ditugu, erreferentziarik gabe, orain arte aipatutako lan gehienetan jasotzen baitira, gutxi-asko, modu batera ala bestera:

- Gizonezkoak gizonezkoari hika egin baina emakumezkoekin zuka erabiltzea.
- Emakumezkoari hika egin bai baina toka aritzea, batez ere gizonezkoak, baina baita emakumezkoak ere.
- Talde mistoetan toka aritzea, gizonezkoei bakarrik hitz egingo balitzaie bezala, nahiz emakumezko hartzaileak ere egon.
- Tokako formak neutro gisa erabiltzea, dela afixetan, dela abestietan, dela beste hamaika egoeratan.

Fenomeno horietako batzuk berriak dira; beste batzuk ez hainbeste. Edo lehen salbuespen modura gertatzen ziren, eta orain ohikoago bilakatu dira. Horren aurreko erreakzioak askotarikoak izaten dira emakumezkoen artean, baina oro har kexu agertu dira orriotan erreferentzia egin diegun hainbat lanetan.

Hizkuntza ez-sexistarako edo inklusiborako gidetan ere ohikoa da fenomeno honi erreferentzia egitea. Emakundek (1988) kaleratutako lehenengo eskuliburuan aipamen laburra egiten zaio, eta azken urteotan argitaratu direnek ere azpimarratzen dute kontuz ibili beharra dagoela. Fernándezek (2018) idatzitako gidan ohiko diskriminazio horiek guztiak identifikatzen dira, eta Antton Olariagak darabilen "-nk" formula hartzen du hizpide. Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak (2020) hizkuntza eta generoa ardatz dituen instrukzioa landu du, eta hor ere aipatzen da morfema mistoa. Halere, zukako formak hobesten dituzte publiko orokorrari zuzentzean, edo aginterako formetan aditz laguntzailea baitezpadakoa ez dela iradoki.

Aski ezagunak dira emakumezkoak hitanoa dela eta pairatzen dituen egoera azpiratzaileak. ...

- **Emakumezkoari hika egin bai baina toka aritzea, batez ere gizonezkoak, baina baita emakumezkoak ere.**
- **Talde mistoetan toka aritzea, gizonezkoei bakarrik hitz egingo balitzaie bezala, nahiz emakumezko hartzaileak ere egon.**

**Emakumezkoen
hitanoak bizi
duen egoera
kaxkarra dela
batetik, eta
tresna horrek
emakumezkoen
ahalduntzean
joka dezakeen
papera dela
bestetik,
diskurtso
berriak nahiz
herri mailako
ekimenak ari
dira emeki
loratzen.**

3.3. Emazten fabore: hitanoaren loraldi(txo) a feminismotik

Generoak hitanoan jokatzeko duen rola berebiziko garrantzia du, orain arte erakutsitakoek argi utzi bezala. Hain argi, non Echeverriak (2001:358) honako hau baitzioen: “Whether or not one can ‘own’ *hika* depends, in part, on one’s gender”. Bada, hitanoaren paradigma berria delakoaren baitan, emakumezkoek ildo propio bat lantzen dihardute azken urteotan. Emakumezkoen hitanoak bizi duen egoera kaxkarra dela batetik, eta tresna horrek emakumezkoen ahalduntzean joka dezakeen papera dela bestetik, diskurtso berriak nahiz herri mailako ekimenak ari dira emeki loratzen.

Echeverriak (2001:357) argi adierazi zuen: “*hika* is primarily a marker of male-male solidarity”. Ahots berriagoek ere antzeko kezka darabilte. Izan ere, Uxue Alberdik (2019) emakumezko bertsolariengandik jasotako testigantzetan jasotako araberak, bertso-giroan *anaidia* delakoa oso egitura sendoa da, eta hitanoak gizonezkoen arteko hartu-eman horiek osatzen eta indartzen laguntzen du maiz. Agirrek eta Eskisabelek (2019:51) ere hausnartu zuten honen inguruan:

Gizonak gizonari *hika* egitea eta emakumeari zuka egitea, izan al liteke gizonak elkarren artean “*anaiak*” kontsideratzen direlako zantzu adierazgarri bat? Zer konplizitate ari da erakusten gizon bat beste gizon batekiko hari “*hi*” esaten dionean? Celia Amorós filosofoak esaten duen bezala, gizontasunean elkar ezagutzen dutela? Berdinak direla? Berdinen taldekoak direla?

Anaidiaren eta gizontasuna –norbanako gisa nahiz kolektiboki– erakitzeke mekanismo horien aurrean, emakumezkoen arteko aliantzak, konplizitatea, elkartasuna, eta, finean, ahizpatasuna indartzeko tresna gisa erabilgarri izan ote daitekeen esploratzen dabilta feminismoaren zenbait esparrutan. 2.1. azpiatalean aipatu dugun bezala, argi samar dago gizonezkoen artean toka egiteak zer konnotazio dituen, zer iradokitzen duen –nahiz hor ere eboluzio bat ikusi dugun–; emakumezkoen artean, berriz, Echeverriak (2001, 2003) “espazio ambiguo” zeritzon batera garamatza hitanoak. Espazio hori haien alde bideratzeko saiakeren lekuko izaten ari gara; noketa esanahi berriz beztitzeko ahalegina, nahiz oraindik bere bidea egiten hasi besterik ez den egin eta gaur-gaurkoz definitzeko dagoen.

Legorbururen (2018) lana aitzindaria izan da akademiatik fenomeno hori aztertzen. Antzuolako hiru emakumezko gazteren hitano-hiztun

bilakatzeko bidea aztertu zuen elkarrizketa bidez. Azpimarratu zuen, lehenik eta behin, emakumezko horiek ekintza horren bidez hiztun aktibo bihurtzearen garrantzia, askotan emakumezkoek ukatu izan zaien “agentzia” erakustaldia eginda. Emakumezko horien ahalduntzea ere hartzen du ahotan (Legorburu, 2018:134-135):

Emakumeentzako ahalduntze prozesu baten baitan kokatu litekeela noketarako mudantza. Azken finean, hasiera bateko lotsa horiek gainditzeak, eta galdutako esparru linguistikoko baten errekupeazioaren alde modu kontziente eta aktibo batean aritzeak, hein batean pertsona boteretzen baitu.

Ildo beretik, azken urte gutxiotan ikastaro, tailer, ekimen eta bestelakoak jarri dira martxan Euskal Herriko zenbait txokotan, emakumezkoak erdigunera ekarri dutenak. Hona ekarri ditugu 2018tik honako batzuk.

- Hernaniko emakumezko gazte batzuek hika egiten ikasteko formazio-saioa antolatu zuten, eta geroztik hala mintzo dira haien artean.
- Zestoan hitano-ikastaroa antolatu zuten, nokako formetan arreta berezia jarritz.
- Azpeitian “Hitanoa, emakumea ahalduntzeko tresna” jardunaldia antolatu zuten: goizean formazio teorikoa jaso eta arratsaldean “nokadromoa” izeneko saio praktikoa izan zuten.
- Gabirian “Nokaldia” delakoa diseinatu zuten, herritarrak formatu ondoren, Euskaraldiaren filosofian oinarrituta.
- Igorren noka-ikastaroa antolatu zuten, ondoren mintza-praktika informalexegoei bide emateko.
- Orioko emakumezkoentzako Ahalduntze Eskolak “Noka” izeneko ikastaroa antolatu zuen, emakumezkoek forma horiek ikas zituzten, eta berehala bete ziren plaza guztiak.

2021eko udazkenerako beste bi herritan antolatu dituzte gai hau lantzeko ikastaroak: Usurbilen eta Arrasaten; Usurbilgoa nokako formei lehentasuna emango dien hitano-ikastaroa eta Arrasatekoa feminismoa ardatz hartuta onduko den ikastaro teoriko-praktikoa.

Horiez gain, Oñatin *Ingo Xonau!* egitasmoaren baitan, 54 oñatiarren testigantzak jaso zituzten -emakumezkoenak gehienak-, eta bideo formatuan aurkeztu. “Oñatiko hika poltsikaran” izeneko liburuxka argitaratu eta zabaldu zuten, eta 2021ean eskoletara ailegatu da ekimena, 2.3. atalean erakutsi bezala. Formazio-saioak ere prestatu dituzte, emaku-

Emakumeentzako ahalduntze prozesu baten baitan kokatu litekeela noketarako mudantza. Azken finean, hasiera bateko lotsa horiek gainditzeak, eta galdutako esparru linguistikoko baten errekupeazioaren alde modu kontziente eta aktibo batean aritzeak, hein batean pertsona boteretzen baitu.

**Gizonezkoari
toka egin
behar zaio, eta
emakumezkoari
noka egin behar
zaio... Ez dago
erdibiderik
hitanoarentzat. ...
Gure erdaretan
genero-
markak ahal
den neurrian
arintzen ari
garen honetan,
kontraesanik ba
al da bitartasuna
hain markatua
duen hizkuntza-
tratamendua
bultzatzean?**

mezkoentzat soilik, emakumezkoaren ahalduentzeari begira pentsatuak. Azkenik, Azkoitian *Hike eizan!* egitasmoa jarri dute martxan, hitanoa eta bereziki noketa bultzatzeko asmoz, eta denboran zehar jarraipena izan dezan nahi dute⁶.

Izaera desberdineko ekimenak erakutsi ditugu hemen, denak emakumezkoen artean hitanoaren ezagutza eta erabilera bultzatzearen aldekoak. Genero-ikuspegitik berariazko lanketak egitea garrantzitsua da; izan ere, hitanoa bultzatzeko proposamena orokorra bada, arriskua izan dezake batez ere gizonezkoen artean sustatzeko, nahi gabe bada ere, ia modu naturalean, eta horrela genero-arrakala areagotzeko.

Zinez interesgarriak dira hitanoaren eta emakumezkoaren arteko gurtzaketan gertatzen ari direnak, eta momentuz ez du, inondik inora, apalduko delako sintomarik erakutsi. Dena den, hitanoa oraindik bizirik dagoen herrietan gauzatu dira guk aipatutako guztiak, eta ez dirudi erraza halako ekimenak gune horietatik at zabaltzea, bitxikeria hutsetik harago.

3.4. Noka eta toka XXI. mendean: eztabaida eta dilema garaikideak

Gizonezkoari toka egin behar zaio, eta emakumezkoari noka egin behar zaio, edo egin beharko litzaioke. Ez dago erdibiderik hitanoarentzat. Noka edo toka egiten da hika, eta, beraz, emakumezkoari ala gizonezkoari egiteko balio du. Genero-aniztasunaren gaia pil-pilean dagoen honetan, ikusi beharko da nola heltzen zaion hitanoaren gaiari ertz horretatik. Gure erdaretan genero-markak ahal den neurrian arintzen ari garen honetan, kontraesanik ba al da bitartasuna hain markatua duen hizkuntza-tratamendua bultzatzean? Askotariko iritziak azaldu dira orain arteko ikerketetan.

Ozaitak (2014) bi ikuspegi jaso zituen: batzuek zioten generoa bereiztea ez dela inorentzat kalte, ezta berdintasunera bidean atzerapauso ere, eta gainera euskarak berezko duen aberastasuna dela hitanoa; beste batzuek, berriz, garai berrietara egokitzeko beharra ikusten dute, eta hitanoak ez omen du laguntzen genero-aniztasuna ikusarazten. Alberdi-Zumetaren (2019) parte-hartzaile batzuek sexistatzat eta atzerakoitzat jotzen dute hitanoa, hain zuzen, bereizketa horrengatik. Beste baten us-

⁶ Kontuan hartu lan hau 2021eko irailerako idatzi zela. Ordutik hona sortu diren ekimenei buruzko informazioa www.hitanoaz.eus webgunean aurki dezakezu.

tez, hitanoa zaharkituta geratu da egungo ikuspegitik, eta tradizioaren izenean ezin da edozer edonola mantendu.

Legorburuk (2018:136) ere aintzat hartu zuen eztabaida hau, eta jabetzen da gaur egun hitanoak zenbait bere kontra jar ditzakeela bere izaera bitarragatik. Halere, ikuspegi feminista batetik interesgarria iruditzen zaio hitanoa –eta bereziki noketa– sustatzea, kalte baino mesede egin dezakeelakoan:

(...) errealitate bat da, gaur egun eta Euskal Herriko feminismoaren baitan, “emakume” kontzeptua, kategoria politiko gisara erabili, eta honekin identifikatzen den pertsona asko dagoela. Hau horrela, eta genero rolek noketaren galeran —eta emakumeek hitanoz ez hitz egitean— izan duten eragina kontuan izanda, feminismoa tresna polita litzateke noketaren berreskurapenerako.

Momentuz, bi ikuspegi ikusten dira, eta datozen urteetan ikusiko dugu bietako zein gailentzen den, edo proposamen berririk ote dagoen. Edonola ere, esan liteke hitanoaren eta generoaren arteko afera korapilatsuak interes handiagoa piztu duela oro har hitanoaz arduratuta daudenen artean, feminismoaren eta genero-aniztasunaren inguruko taldeetan baino. Badirudi —hitanoaren hedapen mugatuagatik, segur aski—, lagunarteko tratamenduaren bitartasuna ez dela genero-auzien gainean lanean dabiltzanen kezka nagusietako bat.

4. IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA KULTURA-ADIERAZPENAK

Azken atala eskainiko diogu hitanoak sorkuntzan duen, izan beharko lukeen edo izan lezakeen espazioari. Kultura-kontsumoak hiztunen hizkuntza-ezagutza eta -ohituretan eragin dezakeen neurrian, eskaintza horietan hitanoa zertan den begiratzeari ezinbesteko deritzogu.

4.1. Ikus-entzunezko fikzioa telebistan

Lagunarteko tratamenduak lekua izan du ETB1en bere sorreratik bertatik, bai 80ko eta 90eko barne-produkzioetan hizkera kolokialera gerturatzeko (Larrinaga, 2019), bai kanpoko produktuen itzulpeni ukitu informala emateko (Barambones, 2012). *Goenkale* izan da hitanoaren erreferenteetako bat bertan sortutako fikzioan. Lizardik eta Munduatek (2015) *Goenkale*ko hitanoaren erabilerari erreparatu zioten, azterketa sintaktikoa egite aldera. Basterretxeak (2021) gaztelaniazko eta euskarazko tratamenduak erkatzeko *Goenkale* erabili zuen euskarazko corpus gisa.

Esan liteke hitanoaren eta generoaren arteko afera korapilatsuak interes handiagoa piztu duela oro har hitanoaz arduratuta daudenen artean, feminismoaren eta genero-aniztasunaren inguruko taldeetan baino.

**Honakoa ikusi
da: Bertsolari
txapelketa
Nagusian,
30 urteotan
hitanoaren
erabilerak
behera egin du,
baina badirudi
txapelketak
bestela ere ez
direla hitanoaren
bultzatzaile
bertsotan,
arrazoi ugari
direla medio:
publikoari begira
kantatu beharra
bertsokidearei
begira beharrean.**

Euskal Herriko ume eta gazte askorentzat hikako input nagusia *Dragoi Bola* telesail japoniarra izan zen, bereziki 90eko hamarkadan zehar. Muguruzak eta Bereziartuak (2021) ikusi zuten euskarari ez ezik hitanoari dagokionez ere inpaktu handia izan zuela *Dragoi Bolak* ikus-entzuleen artean, eta hitano estandarra ezagutarazten lagundu zuela. Gainera, Bereziartuak eta Muguruzak (2021a) sakon aztertu dituzte *Dragoi Bolako* kapitulu guztiak, eta ondorioztatu dute hitanoa “makro-baliabide” gisa erabili zutela itzultzaileek, modu aberats, askotariko eta emankorreen.

Barambonesek (2012) hitanoa telebistan erabiltzearekiko mesfidantza ere ikusi izan du, batzuk beldur baitira euskaldun orok ezagutzen ez duen tratamenduan aritzeak ez ote dituen ulermen-arazoak sortuko. Barambonesek berak argudio horri buelta ere ematen dio, ordea: hitanoa estrategia didaktiko gisa txerta daitekeela uste du, hitanoa urrun dute-nek gertuago sentitu eta ikas dezaten. Hitanoa ikus-entzunezkoetan erabiltzearen aldekoek ere beti neurrian erabiltzearen alde egin izan dute. 90eko hamarkadan aditu talde batek aholkatu zuen “hitanoa testuinguru jakinetarako uztea” (Larrinaga, 2019:174). Zubizarreta (2007) luze aritu zen itzulpengintzan eta bikoizketan lanean, eta aitortu zuen, harentzat hitanoa ohiko hizkera izan arren, Euskal Herri osorako ari zirelako kontzientzia ere bazutela, eta ezin zituztela pertsonaia guztiak edonon hika hitz egiten jarri. *Dragoi Bola* telesail japoniarrean hitanoa barra-barra agertzen da, baina itzultzaileek erabaki zuten pertsonaia “zintzo” nagusiek oro har elkarri zuka egin ziezaioten, bestela gehiegi zamatuko ote zuten beldurrez (Bereziartua eta Muguruza, 2021a). Gehiegikerian erortzeko arriskua beti egon da presente, horrenbestez; baina baliabide linguistiko gisa erabiltzeko hautuari uko ere ez zaio egin.

Gaur egun hitanoaren erabilera gorabeheratsua da euskal telebista publikoan, baina oro har ez da gehiegi entzuten. Edonola ere, dela euskaraz ekoizten den fikzio-eskaintza murriztatik, dela euskarazko kateen audientzia-datu apalengatik, ez dirudi telebistaren bidez hikako *input* masiborik jaso ahal izango denik epe motzean.

4.2. Bertsolariak hika bai, baina oholtzatik kanpo

Pentsa liteke euskaratik eta euskaraz egindako jarduera hau hitanoaren arnagune dela, hitano-hiztun tradizionalaren profilararekin bat egiten duten norbanakoak bildu izan dituen neurrian. Dena den, bertsolaritzan hitanoak duen presentzia ez da bereziki ikergai emankorra izan.

Agirrezabal eta beste (2014) izan ziren lehenak bertsoaritzan hitanoaren erabilera neurtzen. 1986tik 2013ra bitarteko Txapelketa Nagusiei erreparatuta, ikusi zuten 1986an eta 1989an erabilitako aditz-formen % 10 pasatxo izan zirela hika, baina handik aurrera nabarmen egin zuela behera. Azterketa hori abiapuntu hartuta, Muguruzak (2019) ikertu zuen 1986tik 2017rainoko Bertsolari Txapelketa Nagusietan hitanoak hartutako lekua, botatako bertsoak aztertuz eta protagonistetako batzuk elkarrizketatuz. 30 urteotan hitanoaren erabilerak behera egin du, baina badirudi txapelketak bestela ere ez direla hitanoaren bultzatzaile bertsoan, zenbaitetan bai ordea oztopo, arrazoi ugari direla medio: publikora begira kantatu beharra bertsoakideari begira beharrean, metrika- eta errima-zailtasunak, euskara batuan kantatu bai baina hitano batua ez menderatzea, edo publikoak hitanoaren erabilera ez interpretatzea bertsolariak nahi bezala, besteak beste. Azken txapelketa nagusian, 2017koan, gora egin zuen hitanoaren erabilerak, eta ikusi beharko da joera horri jarraipena ematen dioten hurrengo edizioetan.

Akademiatik kalera jaitsita, hitanoari presentzia handiagoa emateko berriazko saioak antolatu izan dituzte azkenaldian. 2021eko uda iristearekin bat bi ekitaldi egon ziren: batetik, 2.4. azpiatalean aipatu bezala, Durangaldeko Berbalagunek *Hiketalaqunak* egitasmoa jarri zuen martxan, eta proiektua aurkezte aldera lau bertsolari bildu zituzten, gehienak eskualdekoak, saioan zehar hika egin zezaten; bestetik, Azkoitiko *Hike eizan!* egitasmoa ezagutarazteko bertso-saioa antolatu zuten, bertsolariak hika kantari jarrita. Ondoren, mahai-ingurua prestatu zuten bi bertsolariekin, gai-jartzailearekin eta hitanoan aditu den batekin, saioak emandakoaz hitz egin eta eztabaidatzeko. Udazkenean beste saio bat egon zen Arrasaten, eta bertan aritu ziren lau emakumezko bertsoan noka⁷.

Oholtzatik kanpo gizonezko bertsolarien ahotan hitanoa erruz entzutea bezain ohikoa izan da oholtzan hitanoa hutsaren hurren erabiltzea. Oholtzatik kanpo, Maialen Lujanbiok esan izan du bertso-munduan “hi” en arteko “zu” a sentitu izan dela; oholtzan, berriz, baliabide beharrean oztopotzat hartu izan da. Baina bertso-mundua asko ari da garatzen eta aldatzen, neurri handi batean emakumezkoen presentzia nabarmenagoa egiten ari den heinean. Paradigma zaharrak iraultzen ari direla dirudien honetan agian bertsolariak hitanoarekiko duten ikuspuntua ere aldatzeko abagune aproposa izan liteke.

Bertso-mundua asko ari da garatzen eta aldatzen, neurri handi batean emakumezkoen presentzia nabarmenagoa egiten ari den heinean. Paradigma zaharrak iraultzen ari direla dirudien honetan agian bertsolariak hitanoarekiko duten ikuspuntua ere aldatzeko abagune aproposa izan liteke.

7 Kontuan hartu lan hau 2021eko irailerako idatzi zela. Orduetik hona sortu diren ekime-
nei buruzko informazioa www.hitanoaz.eus webgunean aurki dezakezu.

**Ezin uka
genezake hitanoa
baliabide
aberasgarria dela
komunikaziorako
edo kultura-
sorkuntzarako.
Hizkuntza-
errepertorioan
aldaera hori
edukitzea,
margolari batek
bere paletan
beste kolore-
gama bat
edukitzearen
pareko ikusten
dugu.**

4.3. Bestelako kultura-adierazpen eta hedabideak

Azpiatal berean sartu ditugu gainerako esparru guztiak, baina ez garrantzitsuak ez direlako, inondik inora, ezpada ikerketa edo erabilera-
ren ebidentzia eskasiagatik.

Euskal literatura garaikidea segitzen duen edonork ikus dezake hitanoaren erabilera ez dela inola ere salbuespeneko, eta egunerokoan hitanoa presente ez duten idazle askok ere jotzen dutela, gutxi-asko, la-
gunarteko tratamendura. Lizardik eta Munduatek (2015) zenbait litera-
tura-lanetako ezaugarri sintaktiko batzuk aipatzen dituzte, baina beha-
rrezkotzat jotzen dute sakonago ikertzea. Belmar-ek (2020) *Ereduzko
Prosa Gaur* corpuseko ehunka liburu hartu zituen aintzat, hizkuntza-tra-
tamenduen erabilera kuantifikatu eta ikuspegi sintaktikotik aztertze-
ko.

Irratiari dagokionez, Urlak (1995) 90eko hamarkadan Usurbilgo Paotxa
irradi librea egindako behaketen berri baino ez dugu. Haren iritziz, hi-
tanoa kidetasun horizontal bat irudikatzeko erabiltzen zuten esatariek,
gizarteko hierarkiekin hausteko. Euskarazko irratietan tarteka entzun
daiteke hitanoa gaur egun, batez ere tokako formak, elkarrizketetan-eta,
baina esatariaren araberako hautua izan ohi da, erabaki horien atzean ez
baitago irizpide orokorrik.

Beste kultur adierazpide batzuk ere emankorrak izan daitezke, ikuspegi
bai akademikotik bai praktikotik: zinema, musika eta antzerkia buru-
ratzen zaizkigu ooren gainetik. Oraindik esploratzeko eremu bat da,
zalantzarik gabe. Sare sozialetako aipamen, eztabaida eta kalapitetatik
at ez da ezer askorik egiten publiko. Maiz sortzen dira halako debateak,
dela hitanoaren presentziari buruzkoak, dela hitanoaren eta bereziki
hitano batuaren sinesgarritasun edo sinesgarritasun-faltari buruzkoak.
Nolanahi ere, ezin uka genezake hitanoa baliabide aberasgarria dela ko-
munikaziorako edo kultura-sorkuntzarako. Hizkuntza-errepertorioan
aldaera hori edukitzea, margolari batek bere paletan beste kolore-gama
bat edukitzearen pareko ikusten dugu.

Komunikazioaren eremuan buruko min batzuk sortzen ditu hitanoak,
gure ustez, hainbat arrazoi direla medio: hitanoak oraindik ere bere
bizkar daraman ospe txarra, eremu kolokialarekin lotzea eta harreman
profesionalerako egokitzat ez ikustea, hartzailentzat ulergaitza izateko
beldurra edota hitano batua egiteko zailtasunak, besteak beste. Kultur-
gintzaren esparruan aukerak eskaini baino ez dituela egiten iruditzen

zaigu. Bai alor batean eta bai bestean, komunitatearen inplikazioa ezin bestekoa izango da hitanoari balioa eman eta publikoa horretan hezteko.

5. AZKEN HITZAK ETA ETORKIZUNEN GILTZAK

Aurreko lerroetan irakurri ahal izan dugunez, asko izan daitezke hitanoari begiratzeko prismak. Aukera hori ematen du hitanoaren izaera poliedrikoak. Orain artean erpin horietako bakoitzari buruzko datuak eta gure iritziak uztartzen joan gara; amaitzeko, orain arte aipatutakoen artean nabarmenenak iruditu zaizkigunak borobildu eta esan gabe utzitako zenbait ideia harilkatu nahi genituzke.

Hitanoaren alderdi objektiboenari helduta, erabilera neurtzeko zenbait ikerketa ikusi ditugu hemen; batzuetan erabilera erreala jasotzeko ahalegina egin da, besteetan erabilera aitortuari buruzko datuak jaso dira. Litekeena da metodologia orok bere bertute eta akatsak izatea, eta ez egoitea hitanoaren erabilera erreala neurtzeko formula idealik. Dena den, aurrera begira, interesgarria litzateke Euskal Herriko erakundeek bost urtetik behingo Inkesta Soziolinguistikokoan hitanoari buruzko galdera gutxi batzuk txertatzea, lagunarteko tratamenduaren kartografia osatu eta eguneratze aldera. Ozaitak (2014:86) honela justifikatzen du hitanoaren gaineko datu ofizialen beharra: “[E]statistiken bitartez kanpainak bideratzen dira, diru-laguntzak ematen dira eta baita legeak egin ere”.

Gainera, azken urteotako ikerketa gehien-gehienak Gipuzkoan gauzatu dira, eta beraz ez ditugu argazki osoaren ertz zabalak ia ezagutzen. Hitanorik ez dagoen lekuan ezin da gehiegi ikertu, baina beste eremu batzuei begira jartzea interesgarria izan liteke. Bereziki Ipar Euskal Herria datorrigu gogora, ikusteko frantsesaren eraginez, edo bestela ere, zein puntutan dagoen hitanoaren afera eta zein norabide hartzen ari den.

Neurketa horiei esker ezagutu ditugun erabilera-datuak argi erakusten dute hitanoak izan duen beheranzko joera, nabarmen pikoagoa emakumezkoen erabilerean eta emakumezkoen egiteko nokako formaren kasuan. Beherakada horren arrazoiak artean dago hikako formen transmisioa etetea, eta horixe argudiatu izan dute ikerketetako hainbat parte-hartzailek. Hala ere, aurreko belaunaldiak jomugan jarri beharrean, eten horretan arakatuko bagenu, segur aski arrazoi sakonagoak aurkituko genituzke. Izan ere, borondatezkoak diruditen erabakien atzean egiturazko testuinguru jakin bat egon da, transmisioaren aurka jokatzeko

**Aurrera begira,
interesgarria
litzateke
Euskal Herriko
erakundeek
bost urtetik
behingo Inkesta
Soziolinguistikokoan
hitanoari buruzko
galdera gutxi
batzuk txertatzea,
lagunarteko
tratamenduaren
kartografia osatu
eta eguneratze
aldera.**

**Hitanoak
azkenaldian
bereganatu
dituen
konnotazio
berriak aintzat
hartuta,
paradigma
berri baten
aurrean gaudela
defendatu izan
dute autore
batzuek: aipatu
dugu “K”
kalitatearen ikur
bilakatu dela
neurri batean,
jatortasun
edo hizkuntza
maila aparteko
baten baliokide;
analogiari
jarraiki,
ikuskitzen dago
“N”aren ikurra
zeri lotuko
zaion etorkizun
hurbilean.**

zuena, hizkuntza gutxituen komunitateetan arrotz ez zaiguna. Testu-
guru horren ezaugarriari xeheki begiratzea aberasgarriagoa izan liteke,
errua nori egotzi deliberatzea baino.

Bada beste kontzeptu bat *hitano* hitzaren ondoan maiz agertu ohi dena:
konfiantza. Jendeari galdetuta zeren arabera hautatzen duen hika egitea
solaskidearekin, konfiantza izan ohi da irizpide nagusietako bat. Hale-
re, Alberdi-Zumetak (2019:149) honela ohartarazten digu: “Bada nola-
baiteko kontraesana, izan ere, gazteek zalantzarik gabe diote hitanoak
konfiantza transmititzen diela, baina ez dute hika egiten lagunik eta
seniderik hurbilenekin, eta bai, topo egin berri duten ezezagunekin”.
Beraz, badirudi aurrean dutena herrikidea, adinkidea eta gizonezkoa
izatea nahikoa kideasun dela hari hika zuzentzeko, nahiz erabat ezeza-
guna izan. Bada, gainera, gizonezko hainbaten artean mundu guztiare-
kin hika egiten dutelako sentipena, eta, tarteka, harrotasuna. Askotan,
ordea, gizonezkoekin bakarrik funtzionatzen duen kontsigna da. Hor-
taz, konfiantzaren mitoa deseraiki beharra dago, agian; eta, generoak
duen garrantzia kontuan hartuta, Agirre eta Eskisabelen (2019) aipura
itzuli behar genuke, zeinak anaitasun hori benetan zertan datzan gal-
detzen duen. Iruditzen zaigu *konfiantza* kontzeptua baino zehatzagoa
ez ote den Albedik (1996) proposatutako *gertutasun psikologiko* kon-
tzeptua; alegia, benetan ez ote den gertutasun psikologikoa *konfiantzaz*
dihardugunean esan nahi duguna.

Hitanoaren inguruko zenbait uste oker zuzentzeko ahaleginarekin lotu-
ta, baliteke hitanoari bizkarreratu izan zaion sinbolismo ezkor hori ere
iraultzen hasi izana. Hitanoak azkenaldian bereganatu dituen konnota-
zio berriak aintzat hartuta, paradigma berri baten aurrean gaudela de-
fendatu izan dute autore batzuek, oraindik gehiegi definitu gabe dagoen
arren. Nolanahi ere, lehen aipatu dugu “K” kalitatearen ikur bilakatu
dela neurri batean, jatortasun edo hizkuntza maila aparteko baten ba-
liokide; analogiari jarraiki, ikuskizun dago “N”aren ikurra zeri lotuko
zaion etorkizun hurbilean. Izan ere, hitanoaren paradigma berria, edo
horren adar bat behinik behin, estuki lotuta dago genero ikuspegiarekin.

Hitanoa eta generoaren arteko harremana konplexua da, murriztailea
bezain askatzailea izan daitekeena. Hizkuntzek balio sinbolikoa dauka-
tela oinarri hartuta, ez da nolanahikoa bereziki emakumezkoen artean
edo emakumezkoen egiteko nokako formari bizkarreratu zaiona. Egun
nokak daukan egoera uzkurra, neurri handi batean, egiturazko sexis-
moaren isla dela esatera ausartzen gara. Baina oztopoak oztopo bizirik

irautea gutxi ez eta emakumezkoak ahalduntzeko tresna izateko potentzialtasuna aitortu zaio feminisмотik. Ekimen bat eta bi baino gehiago dira bidezidor hori urratzen hasi direnak, eta ikusteko dago bidezidorra bide bihurtzen den. Edonola ere, ibilbide hori ez da soilik emakumezkoek egin beharrekoa, gizonezkoek ere badute zeregina; finean, bere burua emakumezko gisa irakurtzen duen edonori hitz egin nahi dionaren esku ere badago noka hauspotzea.

Hala ere, ikuspuntu zabalago batetik, hitanoa hauspotzeko benetan ezinbestekoak direnak hitano-hiztunak dira. Horrekin lotuta, aipatu dugu hitanoa berezko transmisio-kate sendorik gabe gelditu dela harreman gehienetan, eta, halaber, gai honetan ere, eskolaren bultzada ezinbestekoa izango da. Soilik eskolaren gain uztea, berriz, axolagabekeria litzateke, eta eskolak ezin du gainerako indar guztien osagarri baino izan. Gainera, eskolan hitanoa erakutsi eta praktikatu ahal izateko, unitate didaktikorik onena ez da aski izango hezkuntza-komunitate osoaren inplikaziorik gabe.

Alberdik (1996) argudiatu zuen euskarazko tratamenduekin “nola hasi, hala segi” printzipioa gailentzen dela –persona berarekin tratamendua aldatzea zaila izaten dela, alegia–; bada, “zer ikusi, hura ikasi” printzipioa ere ez genuke ahaztu behar, eta belaunaldi gazteagoek kalitatezko hitanoa berenganatuko badute, helduak beren erreferentzialtasunaz jabetzea funtsezkoa da.

Hitano-hiztun potentzialei begira jarrita, badirudi hitanoa ezagutzeak ez gaituela automatikoki hiztun aktibo bilakatzen, horretarako borondatea izanik ere. Ikusi dugu euskaldun berriaren antzeko ajeak paira ditza keela hitano-hiztun berriak, hitano-hiztun gisa benetakotasuna lortzea ez zaiola beti erraza suertatuko, eta ezaugarri jakin batzuek lagunduko diotela Artetxek (2018) *passinga* deitzen dion hori eskuratzen. Batetik, oraindik ikertzeko dagoen gai bat izan liteke hitano-hiztun berriena, eta horri lotuta, hikako forma batuaren rola aztertzea. Bestetik, ikerketak ikerketa, derrigorra da hitano-hiztun berriei sarbidea erraztea, ziurrenik hori baita hitano-hiztunen komunitatea handitzeko biderik behinena.

Hika egiteko testuingururik edo jariorik eduki ez baina hitanoari begi onez begiratzen diotenen artean ohikotzat jo dezakegun fenomeno bat ere ezin aipatu gabe utzi. Alberdik (1996) erakutsi zuen zuka gertatu ohi diren harremanetan ere lagunarteko tratamendura jauzi egin ohi duela tarteka hiztunak, esan beharrekoari adierazkortasuna gehitzeko. Bere-

“Hitanoaren tartekako erabilera adierazkorra” deitu diote horri; askotan esaldi solteak izan ohi dira, edo hika bota ohi diren esamoldeak.

Erabilera horrek balio lezake, halaber, hika egiteko ohiturarik ez duenarentzat erabateko hitano-hiztun bilakatzeko trantsizio-fase gisa.

ziartuak eta Muguruzak (2021b) *hitanoaren tartekako erabilera adierazko-rra* deitu diote horri; askotan esaldi solteak izan ohi dira, edo hika bota ohi diren esamoldeak. Ikergai emankorra izan liteke hori, erabilera horrek balio lezakeelako, halaber, hika egiteko ohiturarik ez duenarentzat erabateko hitano-hiztun bilakatzeko trantsizio-fase gisa (ikus Kintana, 2005; Bereziartua & Muguruza, 2021b).

Bukatzen joateko, orain arte ukitu gabeko puntu bat ekarri nahi genuke hona. Jakina da gazteek –eta ez hain gazteek– hizkuntzari ukitu informala eman nahian, kaleko hizkerara gerturatu nahian, erdaretara jotzen dutela; bada, iradoki izan da hitanoak ordeza lezakeela ohitura hori. Hitanoak potentzialtasun handia du, hemen erakutsi dugun moduan; baina hemen ikusi moduan, auzi konplexua da, ertz askokoa, eta segur aski ez da nahikoa izango hutsunea eta baliabidea elkartzearekin. Tes-tuinguru batzuetarako tresna baliagarria da, ezbairik gabe, baina nekez esporta daiteke modu berean Euskal Herriko izkina guztietara.

Hitanoaren etorkizuna ez dago inondik inora bermatuta, baina itxaropena pizten du azkenaldian akademiatik eta gizarte-mugimenduetatik datozen kontzeptu, ekimen eta diskurtsoen berri izateak. Erakutsi dugu hitanoak hamaika erpin dituela eta denei heldu behar zaiela, nork beretik, lagunarteko tratamenduak bide egin dezan. Aurrerantzean ere ezinbestekoa izango da ikertzaileek eta herrigintzako eragileek elkar elikatzea, eta ahal dela eskutik joatea, bi alderdiak funtsezkoak izango baitira hitanoaren biziraupenerako eta garapenerako. ●

ERREFERENTZIAK

- Agirre, Lorea & Eskisabel, Idurre (2019). *Trikua esnatu da*. Zarautz: Susa (Lisipe bilduma).
- Agirrezabal, Manex, Arrieta, Bertol, Astigarraga, Aitzol & Hulden, Mans (2014). 1986-2013 arteko Bertsolari Txapelketa Nagusien analisi estatistikoa. Bertsozale.eus. Hemendik jaso 2021eko irailaren 7an: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia-2013/albis-teak/1986-2013-arteko-bertsolari-txapelketa-nagusien-analisi-estatistiko>
- Alberdi, Uxue (2019). *Kontrako eztaeririk*. Zarautz: Susa (Lisipe bilduma).

- Alberdi, Xabier (1996). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Alberdi, Xabier (2018). Forms of address in Basque. *Pragmatics*, 283, 303-332.
- Alberdi-Zumeta, Laura (2019). Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 113(4), 129-154.
- Amiano, Imanol (2016). *Komikia hitanoaren i(ra)kaskuntzarako baliabide: Azpeitiko hitanoa DBHn* (master amaierako lan argitaragabea). UPV/EHU.
- Aretxabaleta, Karlos (2016). *Noketaren atzerakada Arratiako andrazkoen artean, XX. mendearen lehen laurdenetik gaur egunera* (gradu amaierako lan argitaragabea). Deustuko Unibertsitatea.
- Artetxe, Miren (2018). Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatua a(ha)la auzitan jarri? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109(4), 45-72.
- Azkue, Xabier (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiaiko Udala.
- Aztiker (2021). Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa. Ikerketa kuantitatiboa (txosten argitaragabea).
- Barambones, Josu (2012). *Mapping the Dubbing Scene. Audiovisual Translation in Basque Television*. Bern: Peter Lang.
- Basterretxea, Gorka (2021). La comparación de los pronombres de segunda persona del singular en el español peninsular y en el euskera: ¿una misión imposible?. *Lingüística y Literatura*, 42(79), 216-236.
- Beitia, Iñigo (2017). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139-166.
- Belmar, Guillem (2020). Language variation, contact, revitalization, and translation: A corpus approach to allocutive agreement in Basque. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law*, 74, 38-57. <https://doi.org/10.2436/rld.i74.2020.3410>
- Bereziartua, Garbiñe & Muguruza, Beñat (2020). Euskal hizkun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa. In Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga & Borja Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari* (127-140 or.). Nafarroako Gobernua.
- Bereziartua, Garbiñe & Muguruza, Beñat (2021). Basque informal talk increasingly restricted to men: The role of gender in the form of address *hika*. *Journal of Language and Linguistic Studies*, 17(1), 360-376. Doi: 10.52462/jlls.22.
- Bereziartua, Garbiñe & Muguruza, Beñat (2021b). Hitano-erabiltzaile profil berriak sare sozialetan eta tartekako tratamendu-aldaketa adierazkorra. Kasu-azterketa bat. *Euskera*, 66(1), 75-113.
- Bereziartua, Garbiñe & Muguruza, Beñat (2021c). Hizkuntza-tratamenduak *Dragoi Bolan*: Hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna. *Fontes Linguae Vasconum*, 132, 319-348.

- Echeverria, Begoña (2001). Privileging masculinity in the social construction of Basque identity. *Nations and Nationalism*, 7(3), 339-363.
- Echeverria, Begoña (2003). Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation. *Language in Society*, 32, 383-413.
- Elorza, Ainara (2021). *Hitanoa haur hezkuntzan* (gradu amaierako lan argitaragabea). UPV/EHU.
- Elustondo, Uxo (2021). *Ordiziako ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleen hitano gaitasunaren azterketa; Zaldibiako nerabeen hiketa ikergai* (master amaierako lan argitaragabea). UEU.
- Emakunde (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Bilbo: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1303/12-EMA-LEN__eu_.pdf
- Fernández, June (2018). *Euskararen erabilera inklusiboa*. Bilbo: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/documents/2007376/12795677/Euskararen-erabilera-inklusihoa.pdf/9d3417d4-4479-9b9c-e744-a49c31e65369>
- Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua (2020). *Instrukzioa: generoa eta euskararen erabilera egokia*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/74/42/87442.pdf>
- Imaz, Alaitz (2018). *Hitanoaren erabilera Seguran: Proposamen didaktikoa* (graduondoko amaierako lan argitaragabea). UPV/EHU.
- Kasares, Paula (2017). Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik. In Jone Goirigolzarri, Xabier Landabidea & Ibon Manterola (arg.). *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (27-51 or.). Bilbo: UEU.
- Kintana, Xabier (2005). Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak. *Euskera* 1, 129-159.
- Larrinaga, Asier (2019). *Euskararen normalizazioa: Ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra*. Bilbo: UEU eta UPV/EHU.
- Legorburu, Onintza (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109, 111-138.
- Lizardi, Aitor & Munduate, Manex (2015). Non-argument agreements: an approach to basque allocutivity. *Dialectología*, ale berezia V, 321-350.
- Muguruza, Beñat (2019). Hementxe gauden, hementxe gaudek. Bertsolaritza eta hitanoaren inguruko ikerketa. *Bertsolari*, 113, 158-179.
- Muguruza, Beñat & Bereziartua, Garbiñe (2018). Hitanoari begira soziolinguistikatik: erabilera eta funtzioak. In Luis Maria Naya, Marie Anne Chateaufreyaud & Pauli Dávila (arg.), *Hizkuntzak, Ondarea eta Identitateak. Hezkuntza ikuspegia* (65-76 or.). Madril: Delta.

- Muguruza, Beñat & Bereziartua, Garbiñe (2020). Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre* (545-564 or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Muguruza, Beñat & Bereziartua, Garbiñe (2021). *Dragon Ball* on the Basque public TV: influence on viewers' language attitudes and practices. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*. DOI: 10.1080/01434632.2021.1946547
- Muguruza, Beñat, Bereziartua, Garbiñe & Etxeberria, Juanito (2020). "Ez da mattetzen erakutsi". *Azpeitia, hitanoa eta generoen arteko arrakala. Uztaro*, 115, 117-143.
- Muñoa, Inma (2020). Erregistroak, aldaerak, hizkera gazteak... zer egin dezake eskolak? In Euskaltzaindia (arg.), *Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak* (111-123). Bilbo: Jagon.
- Ortega, Ane, Urla, Jacqueline, Amorrortu, Estibaliz, Goirigolzarri, Jone & Uranga, Belen (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 85-105.
- Ozaita, Josu (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103.
- Soziolinguistika Klusterra (2016). *Azpeitiko hizkuntza erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016. Emaizten txostena*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Soziolinguistika Klusterra (2017). *Usurbilgo hitanoaren kale-erabileraren azterketa. Emaizten txostena*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Ttur-ttur elkarte (Ttur-ttur euskaltzaleon bilgunea kultur elkarte) (2021). *Hikaldia Oiartzunen* (txosten argitaragabea).
- Urla, Jacqueline (1995). Outlaw language: Creating alternative public spheres in Basque free radio. *Pragmatics*, 5(2), 245-261.
- Zabala, Uxue (2021). "Kantu kantari, bai hi eta bai ni!". *Hitanoa biziberrituz ikasleen ahotan* (gradu amaierako lan argitaragabea). UPV/EHU.
- Zubizarreta, Xabier (2007). Euskarazko bikoizketa-topaketa. *Senez*, 34, 31-49.